1. Udalekuak antolatu, kudeatu eta gauzatzeko behar diran zerbitzuak emotea,

2. Oro har, Kultura-jarduerak dinamizetako behar diran zerbitzuak emotea, eta

3. Zeberioko udalerrian gazteen kultura dinamizetako behar diran zerbitzuak emotea: Gazteleku eta Ludoteka

Hori guztia, honako zehar-lerro honeei jagokenez:

a) Euskera: udalekuen eta gazteen kultur dinamizazinoaren ezaugarri bereziek zerbitzu horiek euskeraz gauzatzea dakarte, kontratatu beharreko zerbitzua 3 eta 17 urte bitarteko umeentzat baita. Halandaze, jarduera guztiak euskeraz egingo dira. Horretarako, beharrezko baldintza guztiak bermatuko dira: begiraleak, materiala, plangintza-lana, etab.

Era berean, dokumentu idatziak, memoriak, informazino-zirkularrak, gutunak edo udalari, familiei edo/eta jentaurrean jarriko diran bestelako lanak euskeraz edo euskeraz eta gaztelaniaz egingo dira, eta, azken kasu horretan, euskerari emongo jako lehentasuna, formari eta/edo lekuari jagokonez.

Ganera, pertsona eta talde bakotxaren hizkuntza-errealidadea kontuan hartuta, estrategiak ezarriko dira talde bakotxean euskeraren erabilera sustatzeko, euskeraren aldeko jarrerak sustatzeko eta euskal kultura ezagutarazteko.

b) Bardintasuna: jardueretan neska-mutilen arteko bizikidetza osasungarria baldintza bardinetan bermatzeko bitartekoak jarriko dira; neskentzat, mutilentzat eta ez-bitarrentzat eskaintza erakargarria planteauko da; eztabaidetan eta erabagietan nesken presentzia eta parte-hartze aktiboa bultzatuko da, genero-erispidea kontuan hartuko da taldeak eta espazioak banatzerakoan, begiraleen artean rolak banatzerakoan eta hedapen-material lez erabiliko diran irudiak aukeratzean, hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiliz.

c) Inklusinoa: haurtzaroan dagoen aniztasuna kontuan hartuko da eta aniztasunari erreparauko jako. Jardueretan, arreta emongo jakoadinbako neska, mutil zein ez-bitar bakotxaren preminei, parte-hartzaile bakotxarentzat hezkuntza arloko esku-hartze esanguratsua garatuz. Ikuspegi integratzaile batetik lan egiteak bazterkeria-arrisku errealaren adierazleak (premina espezifikoren bat, gizarte-trebetasunik eza, jatorria eta abar) daukiezan gazteen eskaerei eta preminei arreta eskaintzea dakar.

d) Ingurumena: naturarekiko errespetua kontuan hartuko da, batez be txangoren bat egin behar danean, eta batez be ingurunea zaindu eta garbitzeari jagokonez. Era berean, enpresa esleipenduna arduratuko da hondakinak gaika batzeko edukiontziak eukiteaz eta erabilteaz.

2.- EZAUGARRIAK.

A) UDALEKUAK:

Helburua: Udako aisialdia, egitarau oso eta askotariko baten bidez antolatua, ondo pasetea eta espazio ludiko-didaktiko batean garapen sortzaile eta artistikoa lortzea helburu daukana.

Onuradunak: 3 eta 17 urte bitarteko neska, mutil eta ez-bitarrentzako zerbitzua. Hiru taldetan antolatuko da:
- Nagusiak: 12-17 urte
- Ertainak: 7-11 urte
- Txikiak :3-6 urte

Aldia eta ordutegia: bagila eta garagarrila bitartean egingo dira, eta kontratatzaileak izango dau datak zehazteko eskumena, honako ezaugarri honeen arabera:

-Nagusiak: 5 egunez egingo da, lortu nahi dan helburuagaz bat datozen instalazinoetan, udalerritik kanpo, eta eguneko jarduerekaz osatuko da.

-Ertainak: 10 egunez egingo da, herrian bertan, 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik barikura. Gitxienez txango bi egingo dira udalerritik kanpo, enpresak kontratautako autobusagaz.

-Txikiak: 10 egunez egingo da, herrian bertan, 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik barikura, helburuagaz bat datozen jarduerekaz.

Halandabe, ordutegi horreek aldatu ahal izango dira zerbitzuaren preminen eta eskarien arabera.

Plaza-kopurua:
- Nagusiak: 15 plaza
- Ertainak: 45 plaza
- Txikiak: 15 plaza

Inskripzinoek eskainitako plazen gehieneko kopurua gainditzen badabe, honeek izango dira plaza horreek esleitzeko erispideak:

1. Zeberion erroldatuta dagozan 3 eta 17 urte bitarteko neska, mutil etaez-bitarrak, inskripzio-eskaeraren hurrenkeran.

2. Aita edo ama Zeberion erroldatuta daukien 3 eta 17 urte bitarteko neska, mutil etaez-bitarrak, inskripzio-eskaeraren hurrenkeran.

3. Aitita edo amamaZeberion erroldatuta daukien 3 eta 17 urte bitarteko neska, mutil etaez-bitarrak, inskripzio-eskaeraren hurrenkeran.

4. Talderen batean plaza libreak geratuz gero, aurreko puntuak beteten ez dabezan 3 eta 17 urte bitarteko neska, mutil etaez-bitarrakbete ahal izango dabez.

Helburuak: Adinbako guztien premiak asetzeko, honako helburu honeek landuko dira:

- Adinbako neska, mutil eta ez-bitarrei astialdiaz modu aktiboan, parte-hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozetako aukera emotea.

- Espazio eta aukera egokiak eskaintzea adinbako neskek, mutilek eta ez-bitarrek hartu-emon pertsonal esanguratsuak izan daiezan, bai euren eremuan, bai helduekaz.

- Denpora librea euskeraz bizitzeko eskubidea bermatzea eta euskal kultura bultzatzea. (Zerbitzua eta eskaintza euskeraz izatea)

- Adinbako, neska, mutil eta ez-bitarrak udalerriko berezko jardueretan eta ohituretan sartzea, herritartasun aktiboa prestatze aldera.

- Adinbako neska, mutil eta ez-bitarren artean benetako aukera-bardintasuna bermatzea.

- Jatorri guztietako adinbako nesken, mutilen, ez-bitarren eta nerabeen parte-hartzea eta inklusioa sustatzea.

- Aisialdi kontsumistaren ereduari alternatibak eskaintzea.

- Balioen hezkuntza sustatzea: errespetua, bizikidetza, alkartasuna, etab.

- Adinbako neskei, mutilei eta ez-bitarrei jarduera berriak ezagutzeko eta horreetan parte hartzeko eta zaletasunak garatzeko aukera eskaintzea.

- Premina bereziak daukiezan adinbako neskentzako, mutilentzako eta ez-bitarrentzako zerbitzuak erabilteko aukera erraztea.

- Neska, mutil eta ez-bitarren informazino- eta orientazino-beharrei erantzutea.

- Adin-talde berberekin lan egiten daben herriko eta inguruko hainbat eragile eta zerbitzugaz sare-lana bultzatzea.

- Adinbako neska, mutil eta ez-bitarrei beste adinbako batzuekaz eta helduekaz erlazionetako eta jolasteko aukera eskaintzea.

Euskera izango da zerbitzuan erabiliko dan hizkuntza, bai lan-hizkuntza lez (hartu-emonak, koordinazinoa, antolaketa...), bai hartzaileei arreta zuzena emoteko erabilten dan hizkuntza lez. Horretarako, beharrezko baldintza guztiak bermatuko dira: hezitzaile euskaldunak, euskerazko materiala, euskeraren erabilera sustatzeko plangintza. Ekipamentua eta parte-hartzaile bakotxaren hizkuntza-errealidadea kontuan hartuta, euskeraren erabilera sustatzeko, euskeraren aldeko jarrerak sustatzeko eta euskal kultura ezagutarazteko planak eta estrategiak ezarriko dira.

Zerbitzuan etenbako lana egingo da adinbakoen arteko aukera-bardintasuna eta diskriminazino eza egia izan daiten, eta horretarako hezkidetzako metodologiak erabiliko dira. Aukera-bardintasuna bultzatuko da, adinbako nesken, mutilen eta ez-bitarren interesei eta motibazinoei erantzuteko, jardueren aniztasuna proposatuz. Bereziki zainduko da rol-aldaketa, normalean sexu jakin bati esleitzen jakozan zereginetan.

Besteak beste, honako honeek hartuko dira kontuan:

- Eskaintza erakargarri bat egitea parte-hartzaileentzat.
- Nesken presentzia eta parte-hartze aktiboa eztabaidetan eta erabagiak hartzean.
- Espazioaren banaketa.
- Hedapen-materialetan erabiliko diran irudien aukeraketa; hizkera ez-sexista, inklusiboa. erabiltea.

Adinbakoen artean dagoen aniztasuna kontuan hartuta, zerbitzuak arreta berezia eskainiko deutse premina bereziak daukiezan pertsonei (gizarteratzeko zailtasunak, ezintasun fisikoa, psikikoa edo sentsitiboa, jokabide arriskutsuak...). Zeharkako lerro horren garapenean, honako organo honeekaz batera lan egitea bultzatuko da: Zeberioko Udalaren gizarte-zerbitzuak, ikastetxeak, etab.

Debekatuta dago tailer edo jarduera politikoak egitea.

Parte hartzen daben adinbakoen aukerak errespetauko dira, baldin eta alkarbizitzari modu negatiboan eragiten ez badeutse eta taldeko ganerakoentzat kaltegarriak ez badira.

Parte-hartzaileek arauak behin eta barriro eta nabarmen beteten ez badabez, horren barri emongo da, neurri egokiak hartu ahal izateko.

Ezelako zigor fisiko edo psikikorik ez dala erabiliko bermatuko da.

Parte-hartzaileak udalekuetara tratu txarren seinaleekaz iristen dirala ikusten bada, denporarik galdu barik jakinaraziko jako Zeberioko Udalari.

B) KULTUR JARDUERAK DINAMIZETEA

Helburua: Helburua izango da herritarrei kultura zabaltzea eta kulturarako sarbidea erraztea, kultura-jarduerak programatuz, bai eta tokiko ondare historikoa ikertuz, kontserbatuz eta zabalduz be.

Enpresa esleipendunak profil teknikoa daukan pertsona bat izango dau, gitxienez, hainbat jarduera antolatu eta dinamizetako, udalaren kultura-jarduera bultzatze aldera. Udalerriko kultura-bizitza indartzeko eta sustatzeko lan egitea, kultura gizartea egituratzeko elementu, udalerriaren ardatz kohesionatzaile eta integratzaile eta udalerria proiektetako bide bihurtu daiten.

Horreek holan, honeek dira zerbitzuaren helburuak:

• Ezagutzaren garrantziaz eta kulturaren balioaz sentsibilizetea eta hori sustatzea.

• Kultura indartzea eta sustatzea, haren sorrera bultzatuz, Zeberioko kultura-sektorearen dimentsinoa eta garrantzia indartuz eta handituz, eta udalerritik harago proiektetako lan egitea.

• Kultura demokratizetea ikuspegi inklusibo eta parte-hartzaile batetik, kultura-ondasun eta -zerbitzuetarako benetako sarbidea errazteko eta zabaltzeko asmoz.

• Kultura-ekintza sustatzea, kultura udalerrian elementu kohesionatzaile eta integratzaile bihurtu daiten, garapen jasangarriaren helburuak lortzen lagunduz.

Onuradunak: Herritar guztientzako zerbitzua.

Halandabe, gazteak erdigunean jarri nahi dira, jarduera horreek batzeko eta ikasteko gune bihurtzeko, non hiru hilean behin ikasgai jakin bat ikasiko dan, modu atsegin, didaktiko, hurbil eta bisualean. Helburua da pertsonak irakurketara hurreratzea, eta, aldi berean, pentsamentu kritikoa eta talde-lana garatzea. Pertsonak eurak izango dira aukera desbardinak aztertzen dabezanak errespetuzko eta autoikaskuntzako giro batean.

Euskera izango da zerbitzuan erabiliko dan hizkuntza, bai lan-hizkuntza lez (hartu-emonak, koordinazinoa, antolaketa...), bai hartzaileei arreta zuzena emoteko erabiliko dan hizkuntza lez. Horretarako, beharrezko baldintza guztiak bermatuko dira: hezitzaile euskaldunak, euskerazko materiala, erabilera sustatzeko plangintza... Ekipamentua eta erabiltzaile bakotxaren hizkuntza-errealidadea kontuan hartuta, euskeraren erabilera sustatzeko, euskeraren aldeko jarrerak sustatzeko eta euskal kultura ezagutarazteko planak eta estrategiak ezarriko dira.

Zerbitzuan etenbako lana egingo da sexu guztiek izandako lorpenak agerian jarteko. Kontuan hartuko dira, besteak beste, honako honeek: adinbako guztientzako eskaintza erakargarria egitea; neskak eztabaidetan eta erabagiak hartzean egotea eta aktiboki parte hartzea; espazioa banatzea; hedapen-materialetan erabiliko diran irudien aukeraketa; hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea, eta abar.

Adinbakoen kolektiboaren aniztasuna kontuan hartuta, zerbitzuak arreta berezia eskainiko deutse premina bereziak daukiezan pertsonei (gizarteratzeko zailtasunak, ezintasun fisikoa, psikikoa edo sentsitiboa, portaera arriskutsuak, sexu-orientazinoa...). Zeharkako lerro horren garapenean, organo honeekin batera lan egitea bultzatuko da: Udaleko gizarte-zerbitzuak, ikastetxeak, etab.

C) GAZTEEN KULTUR DINAMIZAZINOA

Helburua: Gazteak dinamizetako zerbitzua urtean zehar egin beharreko tailerrak eta jarduerak antolatzean datza.

Onuradunak: 4 eta 17 urte bitarteko adinbakoentzako zerbitzua. Bi taldetan antolatuko da:

- *Ludoteka*: 4 eta 11 urte bitarteko adinbakoentzako zerbitzua da. Zerbitzu horrek hainbat jolas eta jostailu izan ahal dabezan hezkuntza-espazio bat eskaintzen deutse parte-hartzaileei. Hezkuntza-proiektu baten barruan eta aisialdian jolas-jarduerak egitearen laguntzagaz, zerbitzuaren helburua adinbakoen garapen soziala, afektiboa eta kognitiboa bultzatzea da, ganerako bardinekiko, gurasoekiko eta hezitzaileekiko hartu-emonak landuz.

- *Gaztelekua*: 12 eta 17 urte bitarteko adinbakoei zuzendutako zerbitzua da. Zerbitzu horrek aisialdirako espazio bat eskaintzen deutse parte-hartzaileei, eta bertan hainbat jolas izan ahal dabez. Hezkuntza-proiektu baten barruan eta aisialdian jolas-jarduerak egitearen laguntzagaz, zerbitzuaren helburua taldeko garapen soziala, afektiboa eta kognitiboa bultzatzea da, ganerako adinbakoekaz, gurasoekaz eta hezitzaileekaz daukiezan hartu-emonak landuz.

Aldia eta ordutegia:

- Ludoteka zerbitzua urtarriletik bagilera eta irailetik abendura emongo da, astelehenetik eguenera, 17:00etatik 19:30era. Barikuetan, 17: 00etatik 20: 00etara.

- Gazteleku zerbitzua urtarriletik bagilera eta irailetik abendura emongo da,barikuetan, 17:00etatik 20:00etara.

Data adierazgarrietan (adib.: Abendu Kulturala[1], Gau Baltza[2], Puxigangak[3]), jarduera bereziak egingo dira.

Giza baliabideak:

Enpresa esleipendunak bermatu beharko dau zerbitzua emoten daben pertsonek gitxieneko baldintza honeek beteten dabezala:

Gaztelekuaren koordinatzaile orokorra:
- Titulazinoa: eremu sozialeko unibertsidade-titulua.
- Euskera: 3. HE edo baliokidea.
- Informatika-baliabideak ezagutzea, erabiltzaile-maila.
- Azken hiru urteetan antzeko lanetan izandako esperientzia.

Esleipendunak proposamen bat aurkeztu beharko dau, zerbitzuaren tipologia eta Zeberioko udal- eta gazte-errealidadearen ganean daukan ezagutza uztartuko dauazana.

Gazteleku zerbitzua emongo daben langileen eginkizunak:

-Instalazinoak, materialak eta ekipoak zabaltzea, arreta jartea, kontroletea, jagotea eta ixtea.

---

[1]Abenduan hainbat kultur jarduera antolatzen dira.
[2]Halloween
[3]Inauteriak

- Gazteen dinamizazinoa, gazteekiko interakzinoa hartu-emon dinamika positiboak sortuz, portaera negatiboak kontroletea, autonomia sustatzea eta balioetan heztea, besteak beste.

- Aurretik egozan jarduerak antolatzea eta programa barriak diseinetea.

- Jolasak, aldizkariak eta ganerako materialak kontroletea, jagotea eta mailegatzea.

Euskera izango da zerbitzuan erabiliko dan hizkuntza, bai lan-hizkuntza lez (hartu-emonak, koordinazinoa, antolaketa...), bai hartzaileei arreta zuzena emoteko erabiliko dan hizkuntza lez. Horretarako, beharrezko baldintza guztiak bermatuko dira: hezitzaile euskaldunak, euskerazko materiala, erabilera sustatzeko plangintza... Ekipamentua eta erabiltzaile bakotxaren hizkuntza-errealidadea kontuan hartuta, euskeraren erabilera sustatzeko, euskeraren aldeko jarrerak sustatzeko eta euskal kultura ezagutarazteko planak eta estrategiak ezarriko dira.

Zerbitzuan etenbako lana egingo da aukera-bardintasuna gauzatzeko, generoaren araberako bereizketarik egin barik, eta horretarako hezkidetza-metodologiak erabiliko dira. Kontuan hartuko dira, besteak beste, honako honeek: genero guztientzako eskaintza erakargarria egitea; neskak eztabaidetan eta erabagiak hartzean egotea eta aktiboki parte hartzea; espazioa banatzea; hedapen-materialetan erabiliko diran irudien aukeraketa; hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiltea...

Aste Santuan, udan, Gabonetan eta azterketa-aldietan ordutegia aldatzeko proposamen bat aurkeztuko da, erabiltzaileen preminak hobeto betetzeko.

Generoen artean dagoen aniztasuna kontuan hartuta, zerbitzuak arreta berezia eskainiko deutse premina bereziak daukiezan pertsonei (gizarteratzeko zailtasunak, ezintasun fisikoa, psikikoa edo sentsitiboa, jokabide arriskutsuak, etab.). Zeharkako lerro horren garapenean, organo honeekin batera lan egitea bultzatuko da: Udaleko gizarte-zerbitzuak, ikastetxeak, etab.

3.- MEMORIA.

A) UDALEKUAK

Aurrera eroan beharreko programazinoaren barruan, gitxienez, honako zerbitzu eta jarduera honeek sartu beharko dira:

- Udalekuetan erabiliko diran helburuen eta metodologiaren deskribapen zehatza.

- Udalekuen gai nagusiak, kirol-jarduerak, tailerrak, jolasak eta abar jasoko dauazan programazino zehatza.

- Txangoak.

- Hobekuntzak. Administrazino baldintza-agirian adierazitakoak.

- Euria egiten badau, egin beharreko jarduerak.

Jardueren aniztasuna balorauko da (sormenari, kirolei, arteari, musikari, ingurumenari, genero-bardintasunari jagokozanak, etab.), baita eskaintzen dan udalerritik kanpora urtetearen egokitasuna be.

Jarduerak, besteak beste, honako arlo honeetan kokatu beharko dira: Natura eta ingurumen-hezkuntza, gorputz-arloa eta eremu sozial eta afektiboa eta herrialde-eremua (ohiturak, tradizinoa, hizkuntza, kultura, geografia eta lekuaren historia).

Uda bakotxean jarduerak eta taldeak egingo diran egunak, ordutegiak eta tokiak ezarriko dira.

B) KULTUR JARDUEREN DINAMIZAZINOA:

Aurrera eroan beharreko programazinoaren barruan, gitxienez, honako zerbitzu eta jarduera honeek sartu beharko dira:

- Helburuen eta erabili beharreko metodologiaren deskribapen zehatza.

- Hiru hilean behin garatuko diran gaiak jasoko dauazan programazino zehatza.

- Hobekuntzak. Administrazino baldintza-agirian adierazitakoak.

- Egun adierazgarrietan egin beharreko jarduerak.

Jardueren aniztasuna balorauko da (sormenari, kirolei, arteari, musikari, ingurumenari, genero-bardintasunari jagokozanak, etab.).

Jarduerak, besteak beste, kulturaren, literaturaren, historiaren eta filosofiaren arloetan kokatu beharko dira.

C) GAZTEEN KULTUR DINAMIZAZINOA.

Aurrera eroan beharreko programazinoaren barruan, gitxienez, honako zerbitzu eta jarduera honeek sartu beharko dira:

- Helburuen eta erabili beharreko metodologiaren deskribapen zehatza.

- Gaiak, kirol-jarduerak, tailerrak, jolasak eta abar jasoko dauazan programazino zehatza.

- Txangoak.

- Hobekuntzak. Administrazino baldintza-agirian adierazitakoak.

- Euria egiten badau, egin beharreko jarduerak.

Jardueren aniztasuna balorauko da (sormenari, kirolei, arteari, musikari, ingurumenari, genero-bardintasunari jagokozanak, etab.), baita eskaintzen dan udalerritik kanpora urtetearen egokitasuna be.

Jarduerak, besteak beste, honako arlo honeetan kokatu beharko dira: Natura eta ingurumen-hezkuntza, gorputz-arloa eta eremu sozial eta afektiboa eta herrialde-eremua (ohiturak, tradizinoa, hizkuntza, kultura, geografia eta lekuaren historia).

4.- ENPRESA ESLEIPENDUNEKO LANGILEAK

A) UDALEKUAK

Enpresa esleipendunak gitxienez langile honeen bitartez emon beharko dauz kontratautako zerbitzuak:

- Zuzendaria: zuzendari nagusi 1 ezarriko da gitxienez.

Betekizunak:

21 urtetik gorakoa, Umeentzako Aisialdiko zuzendari titulua, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritza Nagusiak emondakoa, eta gitxienez urtebeteko (1) esperientzia egiaztatua zuzendari-lanetan, eta hiru hilabetekoa begirale lanetan, enpresa-ziurtagiriaren bitartez egiaztatuta.

- Begirale kopurua inskribatutako adinbakoen araberakoa izango da, eta 10 adinbako bakotxeko begirale 1 ezarriko da.

Ezinbestekoa izango da 18 urtetik gorakoa izatea eta aisialdiko begirale titulua izatea, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunak emondakoa edo homologaua, edo araututako irakaskuntzako edozein titulazino izatea, gizarte- eta hezkuntza-adarrari lotua.

Langileek udalerriko eta inguruko errealidadea ezagutzea balorauko da, baita adinbakoekaz lanean izandako esperientzia be.

Enpresa esleipendunak behar diran txosten tekniko eta/edo medikoen bitartezegiaztatutako aniztasun funtzionalerako laguntzako eta/edo berariazko begirale bat atxikiko deutso zerbitzuari, espediente hau arautzen dauan administrazino baldintza-agirian aurreikusitako prezioan.Begirale hori behar berezi fisiko, psikiko edo sentsorialen bat daukien eta arreta indibidualizaua behar dabenadinbakoei edo taldeei arreta emoteko izango da. Enpresa esleipendunari informazinoa eman ahal izango deutsoaniztasun funtzionala daukanaren familiak eta/edo alkarteak, alkarteren baten parte hartzen badau, eta, holan, behar diran neurriak hartu ahal izango dauz.

Udalekuak garatzeko ohiko komunikazino-hizkuntza euskera izango danez, kontratua gauzatzera atxikitako langile guztiek euskeraren ezagutza egiaztatu beharko dabe C1 ziurtagiriagaz edo baliokideagaz (48/2009 Dekretua, Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzekoa).

26/2015 Legeak aldatutako Adinbakoaren Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan eta Boluntarioei buruzko 45/2015 Legean ezarritakoaren arabera, enpresa esleipendunak adinbakoekaz lan egingo daben langile guztien Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak aurkeztu beharko dauz.

B) KULTUR JARDUEREN DINAMIZAZINOA

Agiri honetan aitatzen diran lanak egingo dauazan pertsonak honako honeek bete beharko dauz:

Unibertsidade-titulua izatea, esaterako Haur edo Lehen Hezkuntza, Gizarte Langile, Gizarte Hezitzaile, Informazinoa eta Dokumentazinoa, Bibliotekonomia, Informazino Zientziak edo baliokideak.

Langileek udalerriko eta inguruko errealidadea ezagutzea balorauko da, baita adinbakoekaz lanean izandako esperientzia be.

Udalekuak garatzeko ohiko komunikazino-hizkuntza euskera izango danez, kontratua gauzatzera atxikitako langile guztiek euskeraren ezagutza egiaztatu beharko dabe C1 ziurtagiriagaz edo baliokideagaz (48/2009 Dekretua, Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzekoa).

C) GAZTE-KULTUR DINAMIZAZINOA:

- Batxilergoko titulua edo animazino edo dinamizazino soziokulturalagaz edo/eta aisialdiagaz eta denpora libreagaz lotutako erdi-mailako heziketa-zikloak izatea.

- Animazino soziokulturalagaz eta/edo aisialdiagaz eta denpora libreagaz lotutako prestakuntza espezifikoa egiaztatzea.

Langileak indarrean dagoen lan-legeriak eskatzen dauazan baldintzekaz egon beharko dira kontratauta, eta jarduera garatzen dan unean indarrean dagoen Bizkaiko esku-hartze sozialaren hitzarmenari jagokon soldata-taulak bermatuko jakez.

Umeak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen dauan garagarrilaren 28ko 26/2015 Legeak eta Boluntarioei buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatutako Adinbakoaren Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, enpresa esleipendunak adinbakoekaz lan egingo daben langile guztien Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak aurkeztu beharko dauz.

5. - ENPRESA ESLEIPENDURAREN BETEBEHARRAK. Erakunde esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratau beharko dau jarduerek irauten daben bitartean. Aseguru horren gitxieneko zenbatekoa 600.000 eurokoa izango da, eta biktima bakotxeko 300.000 euroko muga izango dau, ondorengoa estaliz:

- Zerbitzuaren berezko jarduerak egitea, baita hornitzaileek, erabiltzaileek eta bisitariek higiezinean sartzea eta erabiltea be.

- Esleipendunak eta enplegatuak beren lan-jardunean izandako jokabidea.

Erakunde esleipendunak gertatzen dan edozein gorabeheraren barri emon beharko deutso udal arduradunari.

Erakunde esleipendunak memoria bat aurkeztu beharko dau esleitutako zerbitzuen garapenaren ebaluazinoagaz, eta hobetzeko proposamenak egin beharko dauz. Era berean, erreportaje grafiko bat aurkeztu beharko dau, egindako jarduerak eta sexuaren eta adinaren arabera bereizitako datuak jasoko dauazana.

Erakunde esleipendunak udalekuen hasieran aurkitu ebazan lezitzi beharko dauz erabilitako instalazinoak; bestelan, sortutako kalteak bere gan hartu beharko dauz.

Erakunde esleipendunak hizkuntza ez-sexista erabili beharko dau, eta emakumea diskriminetan dauan edozein irudi ezabatu egingo da dokumentazino eta material orotan. Bardintasunaren, rol-aniztasunaren eta erantzukidetasunaren balioak daukazan irudiak sustatuko dira.

Erakunde esleipendunak hizkuntza inklusiboa erabili beharko dau, eta kolektibo kalteberak diskriminetan dauazan edozein irudi ezabatuko da dokumentazino eta material orotan.

Enpresa esleipendunak hartu-emonetan jarteko bitarteko honeek izan beharko dauz, bai familientzat, bai udalarentzat:

- Telefono zenbaki bat, astelehenetik barikura 08:30etik 20:30era erabilgarri egongo dana.

- Helbide elektroniko bat.

Kontratua esleitu ostean, eta programak hasi baino lehen, erakunde esleipendunak parte hartuko daben begiraleen izen-abizenen zerrenda jakinaraziko deutse kultura- eta euskara-zinegotziei, honako honeek zehaztuz: izen-abizenak, NAN, adina, helbidea, telefonoa, titulazinoa eta curriculum vitaea, bai eta sexu-delituen ziurtagiria be, eta ordezkari bat izendatuko dau Udalagaz hartu-emonetan jarteko.

Enpresa esleipendunak bere betebeharrak beteteko behar dauazan langileak kontratau beharko dauz. Langile horreek soilik esleipendunaren mende egongo dira; halandaze, hark enpresaburu lez jagokozan eskubideak eta betebeharrak izango dauz, eta lan-arloko indarreko xedapenak bete beharko dauz, bere kargura dagozan langileei jagokenez.

- Esleipendunak ordainduko dauz material-gastuak, eta aurrekontuan sartutako gastuaren barruan sartuko dira (autobusen alokairua, sarrerak, etab.).

6. - UDALAREN BETEBEHARRAK. Zerbitzuak behar dan lezhedatzeko egin beharreko publizidade-gastuak Zeberioko Udalaren kontura izango dira.

Udalak ordainduko dauz, baita be, jarduera egiten dan udal lokalak erabili eta garbitzeari jagokozan gastuak.

Zeberion, 2022ko apirilaren 29an.

Alkatea
Jon Xarles Idirin Gorrotxategi

ZEBERIOKO UDALA